


Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 0,2 igo dira 2024ko otsailean

Urte arteko datuei dagokienez, 2024ko otsaila 2023ko otsailarekin alderatuta, prezioen igoera % 1,7koa izan da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntza-kostuen indizea % 0,2 igo da 2024ko otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta. 2023ko hilabete berarekin alderatuta, kostuak % 1,7 igo dira.

Eraikigintzako kostuak % 0,1 igo dira eta Obra Zibilekoak % 0,8. 2023ko otsailarekin alderatuta, prezioak % 1,7 igo dira Eraikigintzan eta % 1,4 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin, 2024ko urtarrilarekin, alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,3 igo dira, eta **eskulanaren** kostuek, berriz, ez dute aldaketarik izan. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuaren igoera % 0,6koa izan da eta eskulanarena % 5,4koa.

Lehengaien kostua hilabeteen artean % 0,1 igo da Eraikigintzan eta % 1,0 Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikigintzako lehengaien kostuak % 0,6 igo dira eta Obra Zibilekoak % 0,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	129,1	0,2	1,7
Eraikinetik	128,4	0,1	1,7
Obra zibila	132,0	0,8	1,4
Lehengaiak	130,2	0,3	0,6
Eraikinetik	129,3	0,1	0,6
Obra zibila	134,0	1,0	0,3
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Marxoaren 22a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioak, 2023ko otsailarekin alderatuta 2024ko otsailean gehien igo direnak, azpi sektore hauetakoak dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 5,0) eta *Material elektrikoa* eta *Altzarigintza* (bi kasuetan % 3,2). Aitzitik, sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten eta prezioen jaitsiera handiena izan duten azpisektoreak hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 37,5eko jaitsiera) eta *Mineral ez-metalezkoen industria* (% 5,4ko jaitsiera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Otsaila 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	5.0
Zuraren eta kortxoaren industria	-4.6
Petrolioaren finntzea	-4.5
Industria kimikoa	-4.6
Kautxua eta plastikoa	0.4
Produktu mineral ez-metalezkoak	-5.4
Metalgintza	-0.3
Metalezko artikulak	0.5
Material elektronikoa	-2.2
Material elektrikoa	3.2
Makineriaren fabrikazioa	1.9
Altzarigintza	3.2
Energia elektrikoa eta gasa	-37.5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Martxoaren 22a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62